

## **Cristóbal Balenciaga Museoak udarako kultura- eta aisialdi-programazioa areagotu du hamargarren urteurrenaren barruan**

**Getaria, 2021eko ekainaren 23a.**

Cristóbal Balenciaga Museoak, hamargarren urteurrenaren barruan, kultura- eta aisialdi-eskaintza bat proposatzen du, moda, musika, dantza eta gastronomiaren inguruan, efemeridea bisitari guztiekin eta, bereziki, hurbileneko ikusleekin ospatzeko.

Museoak diseinatutako programak hainbat helburu ditu:

- Alde batetik, urteurrenaren testuinguruan, ibilbide honetan egindako ekimen arrakastatsu edo interesgarrienetako batzuk balioetsi nahi dira, bertako kultura-eragile eta sortzaileekiko etengabeko lankidetzaz aitortuz.
- Gainera, Museoko ezohiko ikusleak erakarri nahi dira, eskaintza dibertsifikatuz, musika, dantza, arte eszenikoak, moda, natura, ondarea eta gastronomia Museoarentzat ohikoak ez diren formatu eta agertokietan aintzat hartuz, ohiko jarduerak sendotzeaz gain.
- Bestalde, programazioa bideratuta dago bertakoen eta gazteen talentua herritarren artean ezagutzera ematera eta sustatzera, bai eta beste erkidego batzuetako turistek eta bisitariek Gipuzkoako harrobi kultural indartsuaren erakusgarri bat erakustera ere.

"Programan, adin eta jatorri guztietako lagunek gozatzeko moduko aukerak daude, baina, batez ere, gazterian jarri nahi izan dugu arreta, museoak bisitatzeko eta beraien sorkuntzak museotik zabaltzeko joera gutxien duen publikoetako bat baita", adierazi du zentroko zuzendari Miren Vivesek.



Ekainean, uztailean eta abuztuan, Museoak programazioa areagotu eta erakusketa-proposamena osatuko du, bisitarien esperientzia indartuko duten kultura-ekimen eta plan konbinatu batzuekin.

## **Bisitak**

Museoak uztailaren 1ean estreinatuko du udako ordutegia, egunero 11:00etatik 20:00etara irekita.

Gaur egungo "Alaïa eta Balenciaga. Formaren eskultoreak" erakusketara programatutako bisita gidatuak, gaztelaniaz eta euskaraz egiten direnak, areagotu egingo dira udako hilabeteetan; aldez aurretik izena emateko aukera dago, gehigarri txiki batekin sarreraren prezioan.

Cristóbal Balenciaga Museoak hamargarren urteurrenarekin batera ikusgai duen "Alaïa eta Balenciaga. Formaren eskultoreak" erakusketak bi sortzaileen – Azzedine Alaïa (1935-2017) eta Cristóbal Balenciaga (1895-1972)– ehun lan aurkezten ditu, Parisko Azzedine Alaïa Fundazioaren bildumetakoak.

Halaber, Museoak "bisita dantzatuak" eszenaratuko ditu uztailean. Dantzaz Konpainiarekin batera egindako ikerketa-prozesu baten emaitza gisa, bisita-esperientzia bat aurkeztuko da. Diziplina artistiko desberdinen arteko harremana du bereizgarritzat, eta bildumako pieza estatikoen eta dantzaren mugimenduaren arteko elkarrizketak aukera emango du Cristóbal Balenciagaren figuraren eta obraren dimentsio berriak aurkitzeko.

"Bisita dantzatuak" egun batean izango dira (uztailaren 18an eta 25ean), eta programatutako egunetan museoan ohiko sarrera eskuratu duten bisitarien horiek ikusteko aukera izango dute.

## **Gau irekia**

Abuztuaren 6an, Getariako zaindariaren jaia den San Salvador egunean, erakusketa gaueko ordutegian bisitatzea proposatzen du Museoak. Sarrera doakoa da, eta ezinbestekoa da museoaren webgunean lekua erreserbatzea, edukiera dela-eta.

## **Plan konbinatuak**

Baterako hainbat jarduera proposatzen dira, zeinetan esperientziak balio erantsia hartzen baitu, ondareari, gastronomiari edo naturari lotuta. Esparru horretan, bisita konbinatua eskaintzen da, Getariako seme ospetsuak diren Cristóbal Balenciagaren eta Juan Sebastian Elkanoren ondareari eta izaerari buruz gehiago jakiteko, hiribilduko alde zaharra eta museoa bisitatuz.

Era berean, bisitariari aukera paregabea ematen zaie Getariako itsasaldeko altxorrak ikusteko, gastronomiari lotutako hainbat gune bisitatuz –Maisor antxoala-lantegia eta Gaintza upategia–, historiari eta gastronomiari esker ezaguna den toki honetako ondare aberatsa ezagutzeko.

Era berean, aukera eskaintzen da belaontzian zeharkaldi bat egiteko, inguruneaz eta flyschaz gozatzeko, aperitiboa ontzian izanda, eta, ondoren, museora bisita egiteko.

Jarduera horiek uztailean eta abuztuan egongo dira eskuragarri. Lehenengo biak data zehatzarekin programatu dira (ostiral eta larunbatetan, hamabostean behin); hirugarren jarduerari dagokionez, berriz, eskatu ahala baizik ezin da egin.

## **Dantza**

Dantzak Museoko hormak zeharkatuko ditu, jardueren eskaintza berezi batekin. Bertan, dantza-ikuskitan batez gozatzeko gonbita egiten zaio bisitariari, Dantzaz Konpainiaren eskutik, bere azken lana aurkeztuko baitu, "Gesala" (uztailaren 3a). Era berean, Dantz(h)ariak familia-tailerrean, Cristóbal Balenciagaren sormen-unibertsoa da abiapuntua, ehunen bidez gorputza mugimenduarekin nola erlazionatzen den aztertzeke (uztailaren 11).

"Gesala", Gil Harushek tradizioei eta aurrerapenari buruz egindako koreografia, Getarian inspiratuta dago, eta genero-ikuspegitik landu da. Ideia Beñat Gereka ikus-entzunezkoen sortzaile getariarrarena da, Beñatek gai horien inguruan lan egin nahi baitu, urte honen amaieran argia ikusiko duen dokumental batean. Hala, gogoeta eta erresonantzia berriak sortzen dituen abiapuntua da, oraingoan, dantza eta mugimendu moduan.

Bestalde, Cristóbal Balenciagaren sormen-unibertsoa da haur txikiei zuzendutako tailer honen abiapuntua, ehunen bidez gorputza

mugimenduarekin nola erlazionatzen den aztertzen baitu. Proposamena Teatro Paraíso, Dantzaz Konpainia eta Cristóbal Balenciaga Museoaren arteko lankidetzaren emaitza da.

Ekimen horiek doakoak dira, baina, nolana ere, horietan parte hartzeko lekua erreserbatu behar da museoaren webgunearen bidez.

[www.cristobalbalenciagamuseoa.com](http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com)

### **Arte eszenikoak**

Katapulta plataformaren eskutik, museoak bi proposamen eszeniko egiten ditu:

“Txilin-hotsak” antzezpena, umore absurdoko 20 minutuko eztanda, non Yolanda bi ontziren txintxin-hotsekin ekiten dion bideari. Metrokoadroka Kolektiboak eta Tranpola antzerki-taldeak sortutako antzezlanak da (uztailaren 30a).

Bestalde, Nerea Garmendiak bakarrik oso pertsonal bat aurkeztuko du. Barrutik eta kanpotik biluztuko da, eta etorri handiz kontatuko du nola izan bizimodu normala, gorreria, epilepsia, zortzi iltze bizkarrean, hitz-jario mugagabe kronikoa eta WhatsAppeko audioekiko mendekotasuna dituzunean.

Era berean, ekimen horiek doakoak dira, Museoaren webgunearen bidez lekua erreserbatu ondoren: [www.cristobalbalenciagamuseoa.com](http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com)

### **Musika**

Museoak musikako gaualdiak proposatzen ditu abuztuko ostiraletan, Kutxa Kultur Musika eta Katapulta Tours programako bandekin eta bakarlariekin, aire librean, kanpoko esparru paregabea, udako terraza batekin. Blanquita Carraquela, Martin de Marte, Ramona´s First Boyfriend eta Sara Azurzak parte hartuko dute.

Era berean, musika elektronikoko saio bat aurkeztuko da, formatu digitalean, dan-tz laborategiaren eskutik; dan-tz kultura- eta arte-arloko proiektuen edukiontzia ere bada, eta musika elektronikoa du ardatz.

Musika elektronikoaren munduan euskal eszenako sortzaile nagusia den Orphidalen proposamena ekainaren 30etik aurrera egongo da eskuragarri museoaren webgunean eta dan-tz laborategiaren plataformetan.

Aurreko kasuetan bezala, emanaldi hauek doakoak dira, museoaren webgunearen bidez lekua erreserbatu ondoren:

[www.cristobalbalenciagamuseoa.com](http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com)

## **Moda Zuzenean**

Kutxa Kultur Moda programako bost diseinatzaile museoan izango dira abuztuan, beraien proposamenak erakusteko eta saltzeko prestatutako gune batean. Jendearen eskura egongo dira, beraien sormen-teknikak eta -prozesuak erakusteko, eta ikusgarritasuna emango diete hala programari nola egoiliarrei.

Diseinatzaileak larunbatean eta igandean (11:00-14:00 / 15:00-19:00) egongo dira beraien standean, bisitariei arreta emateko, beraien diseinuak eta proiektuak azaltzeko, eta beraien lan-prozesuak jendaurrean erakusteko.

Hona hemen diseinatzaileak: RE\_ (Bárbara León), Fanny Alonso, Nahia Salaberria, URAL (Jon Alkain) eta Natural Killer (Itxaso Segues Guridi).

Moda Zuzenean ekimena Museoko hallean egongo da eskuragarri jendearentzat, adierazitako egunetan, erreserba edo sarreraren beharrik gabe.

Azkenik, moda jasagarriak eta bertakoak ere protagonismoa izango dute museoko dendan, ezaugarri horiek dituzten produktuak erosi ahal izango baitira. Euskal Moda programaren deialdi irekian hautatutako markei Museoak emango dien bereizgarri espezifiko batekin identifikatu ahal izango dira.

**Informazio gehiago izateko:** Zuriñe Abasolo Izarra

**Telefonoa:** 943 004 777 / 647 410 775

**Helbide elektronikoa:** [zurine.abasolo@fbalenciaga.com](mailto:zurine.abasolo@fbalenciaga.com)

[www.cristobalbalenciagamuseoa.com](http://www.cristobalbalenciagamuseoa.com)

**Honako hauen lankidetzarekin:**



**dantzaz**

**dan—tz**

---